



AURRETIKO KONTSULTA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN BIZI DIREN FAMILIA UNITATEENTZAKO JAIOTZEENGATIKO ZUZENEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ONESTEN DITUEN FORU DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA

Bat etorritz xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak I. eranskinaren 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuaz, kontsulta publikoa egin behar da goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariak handieneko erakundeei, honako gai hauei buruz:

- a) ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) arauaren helburuak
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, informazio publikoa emateko prezio publikoen arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariak duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarrekin, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2019ko martxoaren 22ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Dirulaguntza lerro berria da; beraz, ez dago aurretik araututa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 33/2013 Foru Araua aldatu zuen urtarrilaren 16ko 1/2019 Foru Arauak sortu zituen.
--------------------	--



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	<p>Seme-alaben jaiotzagatiko zuzeneko dirulaguntzen helburua da Arabako Lurralde Historikoan jaiotze tasa handitzea.</p> <p>Horrez gain, erantsi beharra dago dirulaguntza hauek sortzea eragin zuen zuzenketa egin zuen Orain Araba batzarkide talde mistoaren iritziz laguntza hauek beharrezkoak direla, zenbait familiak, beren diru sarrerak direla eta, ez dutelako ondorengoengatik PFEZa murrizteko eskubiderik.</p>
ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	<p>Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 33/2013 Foru Araua aldatu zuen urtarrilaren 16ko 1/2019 Foru Arauak xedatzen du aldaketek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dutela eragina.</p>
HELBURUAK	<p>Onestea Arabako Lurralde Historikoan bizi diren familia unitateentzako jaiotzeengatiko zuzeneko dirulaguntzen oinarri arautzaileak</p>
ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZK OAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK	<p>Kontuan hartuta 1/2019 Foru Arauak behartu egiten duela Arabako Foru Aldundia jaiotzeengatiko dirulaguntza lerro bat sortzera, dirulaguntza horiek Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu baten bidez arautzeko proposamena da posible bakarra.</p>